

**PROPOSAMENA:**  
**EREMUKO LURRALDE-MUGAPEARI DAGOZKION GIZARTE-  
ZERBITZUAK EMATEKO ERMUKO UDALERRIAREN ETA MALLABIKO  
UDALERRIAREN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN  
HITZARMENA**

1. ORRIA

## **AITZINSOLASA**

### **1. Esparru orokorra**

Gizarte Zerbitzuen Legearen 27.3 artikulua adierazten duenez, ***Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ezarpena aintzat hartuko da lehen eta bigarren mailako arreta-zerbitzuak emateko eta betetzeko*** (mapa hori Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak onartu zuen). Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Zorroari buruzko Dekretua dira udaletako gizarte-zerbitzuak ezartzeko funtsezko elementuak.

Lurralde-antolamenduari eta gutxieneko arreta-mailen ezarpenari dagokienez, honako esparru hau ezartzen du Mapak, legea garatuz:

**Eskubide subjektiboa.** Euskal administrazioek prestazioak eta zerbitzuak baliatzeko aukera bermatu beharko dute 2016ko abenduaren 25etik aurrera, eskubide subjektibo gisa.

**Gutxieneko estaldurak.** Babes-maila homogeneousak sustatu behar dira, eta horrek esan nahi du “antzeko arreta-mailetara (estaldurara) jo behar dela, baina ez berdin-berdinetara, zeren eta gizarte-zerbitzuen premian eta eskaeran eragiten duten faktore demografikoei, sozialei... (zahartzea, migrazio-saldoa, krisiaren inpaktu soziala, babes formalaren eta informalaren arteko oreka, gune bakoitzean alde aurretik dagoen arreta-sarearen ezaugarriak...) joera komunak baitituzte Euskadi osoan, baina baita aldeak ere, lurralde historikoen eta herrien artean”.

**Lurralde-antolamendua.** Gizarte Zerbitzuen Legean ezarritako hurbiltasunaren eta deszentralizaziorik handienaren printzipioei jarraikiz, Maparen helburua da lurraldean ezartzen diren zentroak nahikoak izatea, eremu batean zentro-gabeziarik edo estaldura urriarik izan ez dadin (adibidez, zerbitzu bat ematerik ez izatea edota “zerbitzuak lurraldean ezartzeko irizpiderik egokienei” jarraikiz hurbiltasun egokiarekin ematerik ez izatea). Horretarako, zerbitzu edo zentro bakoitzari hurbiltasun-maila jakin bat ematen zaio (zerbitzu zentralizatuak eta hurbiltasun txiki, ertain, handi edo oso handiko zerbitzuak), eta hurbiltasun-maila horietako bakoitzari mugaketa geografiko bat ematen zaio (lurralde historikoa edo Euskal Autonomia Erkidegoa —zerbitzu zentralizatuen kasuan—, sektorea, eskualdea, eremua, udalerria edo udalerrien elkartzea).

**Memoria ekonomikoa eta finantzaketa.** Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan bilduta dagoen eta Mapa Autonomikoaren ondoriozkoa den Memoria Ekonomikoa, sistema unibertsalizatzeko nean erakunde-maila bakoitzerako aurreikusitako gastu publikoa kalkulatzeko gain, bi xedapen interesgarri biltzen ditu. Alde batetik, Mapak abiapuntutzat duen oinarria da ***“2017. urtetik aurrera administrazio bakoitzari bere eskumeneko zerbitzu eta prestazioak edo laguntza ekonomikoak finantzatzeko erantzukizuna esleitzea***, legean xedatzen den eskumen-araubideari jarraikiz, finantzaketa pribaturik eta beste euskal administrazio publiko batzuetan gizarte-zerbitzuen arloko erantzukizuna duten sailetatik datorren finantzaketarik gabe”. Bestetik, Mapak aurreikusten duenez, “Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren erabaki bidez eta Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian horretarako aurreikusitakoari jarraikiz, ***2015/12/31 baino lehen GZESA hedatzeko finantza-lankidetzarako formula bat (funts bat) eratuko da, bereziki eredu komunitarioa eta lehen mailako arreta garatzen laguntzeko***”.

Koordinazio eta plangintza bateratuak udalaren gizarte-zerbitzuen funtzionamendurako duen garrantzia kontuan hartuta, ezinbestekoa da aipatzea, Legearen xedapenek eta Gizarte Zerbitzuen Mapak diotena, gizarte-zerbitzuen esparruko koordinazio-ibilbideen eta zerbitzuak modu partekatuan kudeatu eta erkidetzeko formulak sustatzearen alorretan. Ildo horretan, Gizarte Zerbitzuen Legeak xedapen hauek ezarri zituen:

- 40. artikuluan, Legeak Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio “Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra egiteko eskumena, bai Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan, bai dagokionean lantzen diren plan sektorial eta berezien esparruan, hain zuzen ere lehentasunak zehazteko eta lege honetan araututako eskubideak Autonomia Erkidego osoan eraginkortasunez erabiltzeko beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioak ematean maila homogeenak bermatzeko, eta, hori guztia, foru-aldundiekin eta udalekin koordinatzeko duen eskumena erabiliz”. Artikulu horrek, gainera, Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio “**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema koordinatzeko ardura, helburu honekin: Euskadiko lurralde osoan prestazio eta zerbitzuen garapen orekatua (prestazio eta zerbitzu horiek lortzeko aukeretan homogeneotasuna bermatuko duena)** eta gizarte-zerbitzuen beren eta gizarte-ongizatean zuzeneko eragina duten sistema eta politiken artean (batez ere osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, enpleguaren, diru-sarreraren bermearen eta gizarteratzearen arloko zerbitzuekin) koordinatzeko mekanismoen ezarpena bermatzea, bere eskumeneko lurralde-eremuan”.
- Era berean, **41. artikulua foru-aldundiei esleitzen die, beraien eskumenekoak diren zerbitzuak planifikatu eta hornitzeko eskumenaz gain**, “hurbiltasun geografikoaren printzipioari eta baliabideen erabilera eraginkorraren printzipioari jarraikiz gizarte-zerbitzuak emateko, **mankomunitateen edo beste udal-elkarte batzuen eraketa sustatu eta bultzatzeko eskumena**”.
- Gizarte Zerbitzuen Mapak udalei eta aldundiei esleitzen die beraien eskumeneko zerbitzuak planifikatzeko ardura, Mapan bertan adierazitako irizpideei jarraikiz. Horretarako, erakunde horiek egindako plangintzak haien ardurapeko lurraldeko eremu jakin batzuetan banatuko ditu beraien eskumeneko zentroak, legearen 36.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Eremu horiek geografikoki zehatz-mehatz identifikatu eta zerbitzuak ezartzeko biztanleria-irizpiderik egokienak kontuan hartuta zehaztuko dira (36.4 artikulua). Mapak berak adierazten duenez, “foru-aldundiak buru izan daitezke, tokiko erakundeekin lankidetzan eta erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta, lurralde historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko prozesuan. Mapa horretan, foru- nahiz udal-eskumeneko baliabideak sartu behar dira, eta zentroak lurraldean hedatzeko proposamena ere egin beharko da”.

Ildo horretan, Mapa autonomikoaren testuak gaineratzen duenez, “**lurralde historikoko gizarte-zerbitzuen Mapan, foru-eskumeneko baliabideak eta udal-eskumeneko baliabideak txertatuko dira**”. Mapa lantzeko, “*aurreikusi da udalek eta foru-aldundiek lurralde historiko bakoitzeko zerbitzu eta prestazioen sarea antolatzen (plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa egiten) laguntzea, betiere erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapari erantsiko zaion mapa bat ezarriko dute elkarren arteko adostasunez. Foru-aldundi bakoitzak sarea planifikatzeko eta Mapa eta udalei zerbitzuen sarea hedatzen lagunduko dieten beste prozesu batzuk egiteko prozesua bideratuko du, hala nola mankomunitateen edo beste udal-elkarte batzuen eraketa*”.

**PROPOSAMENA:**  
**EREMUKO LURRALDE-MUGAPEARI DAGOZKION GIZARTE-  
ZERBITZUAK EMATEKO ERMUKO UDALERRIAREN ETA MALLABIKO  
UDALERRIAREN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN  
HITZARMENA**

2. ORRIA

Baliabideen kudeaketa edo hornidura partekaturako aukerei dagokienez, Gizarte Zerbitzuen Legeak hau dio udalei buruz: “Ardurapean dituzten gizarte-zerbitzuak hobeto eskaintze aldera hala egin behar dutela uste badute, **udalek elkartzeko aukera ere badute. Halakoetan, udalek sortzen duten antolakundearen eskuetan utziko dituzte lege honen bidez jaso behar dituzten eskumenak**” (28.2 artikulua). Zorroari buruzko Dekretuak ezartzen duenez, “*kudeaketa publikoaren arreta, efikazia eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz, beren eskumenerako zerbitzuak ematea agindu ahal izango dute euskal administrazio publikoek, ordenamendu juridikoan aurreikusitako tresnak erabiliz*” (3.2 artikulua).

Zorroari buruzko Dekretuak baliabideak dituzten eta baliabiderik ez duten udalerrien artean zehaztu beharreko konpentsazio ekonomikoa ezartzen du 13. artikuluan. Artikulu horren lehen paragrafoan adierazten denez, “*Euskal administrazio publikoek zerbitzuak lortzeko eta zerbitzuetan jarraitzeko baldintzak malgutu ahal izango dituzte, beren kabuz edo beraien arteko akordioen bitartez; akordio horiek lortuz gero, konpentsazio ekonomikoa ezarri beharko da, baldintzak malgutu zaizkion zerbitzuaren titularra den administrazioaren alde*”.

Kompentsazio orokorra Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren 4.5.3 ekintzan dago aurreikusita. Hauxe du helburu: toki-erakunde batek beste toki-erakunde baten titulartasunpean dagoen edo beste toki-erakunde batek kudeatzen duen baliabide bat erabiltzeko aukera bermatzea.

Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Mapa aztertzean adierazi dugunez, Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak hau ezartzen du: “*Dekretu honetako prestazio eta zerbitzu berriak edo gutxi samar garatutakoak emateko finantzaketa egokia bermatzeko, administrazio publiko eskudunek, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren baitan, eraginkorrenak direla deritzen finantza-lankidetzako formulak adostuko dituzte, 2015eko abenduaren 31 baino lehen, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 56. artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera eta haietan aurreikusitakoa garatzeko*”.

## **2. Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa**

2016-2019 aldiko EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak jasotzen duenez:

- Legearen eskumen-araubidean (41. eta 42. artikuluetan eta, batik bat, bi artikuluen bigarren zenbakian) aurreikusitakoari jarraikiz, beren eskumenerako zerbitzu eta prestazio ekonomikoa hedatzeko plangintza egingo dute foru-aldundiek eta tokiko erakundeek.
- Plangintza horretan, EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan eta Mapan xedatutako irizpide orokorrak hartu beharko dituzte aintzat: biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak (35.4 artikulua); gutxienerako estaldura-mailak eta adierazle sintetikoa (36.4 artikulua); Katalogoan zehazten diren zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak (36.1, 2 eta 3 artikulua).
- Foru-aldundiak, tokiko erakundeekin lankidetzan eta erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta, buru izan daitezke *Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa* egiteko prozesuan. Mapa horretan, foru- nahiz udal-eskumenerako baliabideak

sartu behar dira, eta zentroak lurraldean hedatzeko proposamena ere egin beharko da”.

- Erakunde bakoitzaren plangintza eta, dagokionean, lurralde historikoko mapak eranskin gisa txertatuko dira EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan.

Testuinguru horretan, helburua da Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan eta Mapan zehaztutako irizpide orokorren (hots, hedapen eta estalduren inguruko biztanleria-irizpideen) esparruan lantzea.

- Bizkaiko gizarte-zerbitzuen lurralde-antolamendu egoki baterako parametroak zehaztea eta garatu beharreko zerbitzuak dagokionean kokatuko diren mugapen geografikoak ezartzea.
- Egungo egoeraren estimazioa eta etorkizunerako proiektzioa egitea, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan estaldurei dagokienez ezarritako zerbitzu eta prestazioen garapenaren inguruko helburuei jarraikiz.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarte-zerbitzuen erantzukizun publikoko sarearen eskaintza hedatzeko zereginaren plangintza egitea.

EAEko Gizarte Zerbitzuen Legea, Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua eta Gizarte Zerbitzuen Mapa betez, Bizkaiko ERAKUNDE ARTEKO MAHAIAK Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu zuen 2016ko ekainaren 21ean, eta zerbitzuen zonakatzea ezartzen da bertan. 7 udal-ordezkarik eta 7 foru-ordezkarik osatzen duten mahai paritario bat da, eta Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hedapenaren jarraipena egitea du helburu.

Zonakatze horretan, Ermuko eta Mallabiko udalerriek Gizarte Zerbitzuen Eremua eratuko dute. Ondorioz, Ermuko Udalak eta Mallabiko Udalak, bakoitzak bere aldetik, Oinarrizko Eremuari esleitutako gizarte-zerbitzuak emango dituzte eta, elkarrekin, Ermuko mugapeari esleitutako gizarte-zerbitzuak nola eman erabakiko dute.

Lurralde-mugape bakoitzari esleitutako zerbitzuak ondorengo koadroan jasotakoak dira:

| Mugapea           | UDALAREN eskuduntza                                                                |
|-------------------|------------------------------------------------------------------------------------|
| OINARRIZKO EREMUA | 1.1. Informazioko, balioespeneko, diagnostikoko eta orientazioko zerbitzua         |
|                   | 1.2. Etxeko Laguntza Zerbitzua                                                     |
|                   | 1.3. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua |
|                   | 1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua                                             |
| EREMUA            | 1.7.1. Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua                                     |
|                   | 1.9.1. Abegi-etxea                                                                 |
|                   | 1.9.3. Tutoretzapeko apartamentuak (adinekoentzat)                                 |
|                   | 1.9.4. Etxebizitza komunitarioa (adinekoentzat)                                    |

**PROPOSAMENA:**  
**EREMUKO LURRALDE-MUGAPEARI DAGOZKION GIZARTE-**  
**ZERBITZUAK EMATEKO ERMUKO UDALERRIAREN ETA MALLABIKO**  
**UDALERRIAREN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN**  
**HITZARMENA**

3. ORRIA

Arestian azaldutako guztiaren ondorioz, legez esleitu zaizkien eskumenak baliatuz eta dagozkien betebeharrak betez, Ermuko eta Mallabiko Udalek adierazi dute bat datozela Eremuko mugapeari dagozkion lehen mailako arretako Gizarte Zerbitzuak ematea helburu duen HITZARMEN hau izenpetzeko, honako estipulazio hauei jarraikiz:

**ESTIPULAZIOAK**

**Lehena.** Bi alderdiek Hitzarmen hau izenpetzeko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri. Ermuko Udalaren izenean, bertako alkate-presidente Carlos Totorika Izagirrek dihardu, eta Mallabiko Udalaren izenean, berriz, bertako alkate Igor Aguirre Barrientosek.

**Bigarrena.** Ermua herririk handiena denez eta, beraz, hitzarmen hau sinatzen den unean Gizarte Zerbitzuen Zorrorik handiena duenez, aplikatu beharreko araudiaren ondoriozko eskakizunari jarraikiz, Mallabiko udalerriaren eskura jarriko ditu eremuak esleituta dituen eta bi udalerriek nahitaez bete behar dituzten zerbitzuak. Horrek, nolana ere, ez du esan nahi Hitzarmena sinatzen duen udal bakoitzari gizarte-zerbitzuen arloan lege-xedapenez dagokion eskumenaren titulartasuna lagatzen denik.

**Hirugarrena.** Ermuko eta Mallabiko Udalek behar adinako zuzkidura ekonomikoa dute beraien udal-aurrekontuetan konprometituta, hitzarmen honen aitzinsolasean behar bezala deskribatu diren norainokoarekin eta hedapenarekin eman behar dituzten nahitaezko zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiak 2016ko ekainaren 21ean onartutako Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarrita dauden baldintzetan emateko.

**Laugarrena.** Hala eta guztiz ere, Hitzarmen honen indarraldian Mallabiko Udalak erabakia hartzen badu udal-autonomiaren printzipioa baliatuz Hitzarmen honi lotutako zerbitzuren batez hornitzeko, salbuetsita egongo da zerbitzu horretarako ezarritako baldintzak betetzeaz, eta horrek ez du eraginik izango hitzarmen honi lotutako gainerako zerbitzuetan.

**Bosgarrena.** Eremuko mugapeari atxikitako zerbitzuak sortu edo garatzeko beharra kontuan hartuta, hitzarmen honen indarraldian zerbitzu gehiago atxiki behar badira edo daudenak funtsean aldatzen badira, akordio gehigarri bat jasoko da hitzarmen honi erantsita.

**Seigarrena.** Ermuko Udalak, Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa aplikatuz, konpromisoa hartu du Gizarte Zerbitzuen Eremuko lurralde-mugapeari esleitutako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen hornikuntza bere gain hartzeko. Gaur egun, zerbitzu eta programa hauek dira, segidan zehaztuko den hornidura-planaren arabera:

| ZERBITZU<br>zk.     | DEKRETUAREN IZENA                       | UDAL ZERBITZUA                         | HORNIDURA MOTA                                              |
|---------------------|-----------------------------------------|----------------------------------------|-------------------------------------------------------------|
| <a href="#">1.7</a> | 1.7.1. Eguneko arretarako zerbitzuak 1. | <u>Adinekoentzako oroimen-lantegia</u> | Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuek ematen dituzte zuzenean. |

|                     |                                                  |                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|---------------------|--------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                     | mota                                             | Atsedentzako terapeutikoko zerbitzua                             | Zerbitzuak emateko kontratua Vitalitas enpresarekin (hau da, Abeletxe Egoitza eta Eguneako Zentroa kudeatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren enpresa esleipendunarekin).                                                                                                                                                                                                                                           |
|                     | <u>1.7.2. Eguneako arreta-zerbitzua. 2. mota</u> | <u>Etterik gabeko pertsonentzako zerbitzua</u>                   | Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuek ematen dituzte zuzenean.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|                     |                                                  | EgoKit programa                                                  | Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuek ematen dituzte zuzenean.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| <a href="#">1.9</a> | 1.9.1. Aldi baterako ostatu-zerbitzuak           | 1.9.1.1. Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako abegi-etxea | Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuek ematen dituzte zuzenean.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|                     |                                                  | <u>1.9.1.2. Larrialdiko etxebizitza</u>                          | Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuek ematen dituzte zuzenean.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|                     |                                                  | <u>1.9.1.3. Etxebizitza egokitua</u>                             | Ermuko Udalaren Gizarte Zerbitzuek ematen dituzte zuzenean.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|                     | 1.9.2. Ostatu iraunkorren zerbitzuak             | <u>1.9.2.1. Adinekoentzako etxebizitza komunitarioak</u>         | Zerbitzuak emateko kontratua Vitalitas enpresarekin (hau da, Abeletxe Egoitza eta Eguneako Zentroa kudeatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren enpresa esleipendunarekin). Behin-behineko izaeraz eta Bizkaiko Foru Aldundiari jarraikiz, etxebizitza komunitarioen bideragarritasun ekonomikorako beharrezkoa den plaza-eskaeren kopurura iritsi ezean, egoitza-plaza arrunt bat kontratatuko da zerbitzua emateko. |

**Zazpigarrena.** Eskualdeko mugapeari esleitura dauden eta akordio hau sinatu dutenek ez beste erakunde batek emango dituen gizarte-zerbitzuetarako, udal bakoitzak akordio espezifiko bat lortu beharko du zerbitzuak emango dituen erakundearekin.

**Zortzigarrena.** Ermuko Udalak, Hitzarmen honen bidez, konpromisoa hartzen du bi udalerrietako herritarrei zerbitzuak ematean eskubide- eta betebehar-araubide bera aplikatzeko, jatorriaren araberrako lehentasun-ordenarik ezarri gabe.

**Bederatzigarrena.** Urtean behin, hitzarmen honi lotutako zerbitzu bakoitzaren kostu errealak jakinaraziko dizkio, ofizialki, Ermuko Udalak Mallabiko Udalari.

**Hamargarrena.** Hitzarmen honen eraginetarako, Ermuko mugapeari atxikitako zerbitzuak elkarren artean finantzatzeko dituzte bi udalek, bi kontu hauek aintzat hartuz:

**PROPOSAMENA:**  
**EREMUKO LURRALDE-MUGAPEARI DAGOZKION GIZARTE-  
ZERBITZUAK EMATEKO ERMUKO UDALERRIAREN ETA MALLABIKO  
UDALERRIAREN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN  
HITZARMENA**

4. ORRIA

- Hornidura-kostuak; halakotzat hartuko dira zerbitzu bakoitza eman eta mantentzetik sortutako kostuak, erabili aurrekoak.
- Emate-kostuak; zerbitzuon hartzaileek horiei egindako erabilpenaren ondoriozkoak.

**Hamaikagarrena.** Mallabiko Udalak, hornidura-printzipioa aplikatuz, konpromisoa hartzen du Hitzarmen honi lotutako zerbitzuak mantentzen laguntzeko, Mallabiko herritarren erabilera edozein izanik ere, eta, horretarako, zerbitzuaren kostu errealdaren arabera ekarpen-kuota bat ezarriko da.

**Hamabigarrena.** Ermuko Udalak bi sei hilekoko ordainketatan fakturatuko dio Mallabiko Udalarari zerbitzuen hornidura-kostua. Ordaintzeko egutegiaren arabera, urteko ekitaldi bakoitzeko martxoan eta urrian egingo dira ordainketak.

**Hamahirugarrena.** Gizarte Zerbitzuen Legea aplikatuz (zerbitzu horiek eskuratzeko eskubide subjektiboa finkatzen duen neurrian), udalerriaren eskumeneko zerbitzuen bat hornidura-fasean badago eta haren premia edo eskaera sortzen bada, Hitzarmen honi lotutako udal bakoitzak aurreikusita izango du zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren formula (Zorroari buruzko Dekretuaren 3.4.1 atala).

**Hamalauugarrena.** Urtean behin, hitzarmen honi lotutako zerbitzu bakoitzari aplikatu beharreko ordenantza eta araudien onarpena jakinaraziko dio, ofizialki, Ermuko Udalak Mallabiko Udalarari.

**Hamabosgarrena.** Mallabiko Udalak, Ermuko Udalak proposatuta, hitzarmen honi lotutako zerbitzuei buruzko ordenantzak eta erregelamenduak onartuko ditu, gizarte-zerbitzuak eskuratzeko baldintzak eta baterako ordainketa (baldin badago) bateratzeko.

**Hamaseigarrena.** Ermuko Udalak Mallabiko herritarrek erabili dituzten zerbitzuen kostuak fakturatuko dizkio Mallabiko Udalarari, zerbitzuek baterako ordainketa gisa dituzten prezio publikoen ordenantza arautzaileak aplikatuz. Mallabiko Udala arduratuko da bertako erabiltzaileei zerbitzuen prezioak kobratzeaz.

**Hamazazpigarrena.** Eremuko lurralde-mugapea osatzen duen udalerri bakoitzaren ekarpena banatzeko irizpideak.

1. Gizarte-zerbitzuen hornidurarako partaidetza ekonomikoa udalerri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera ezarriko da. Hori kalkulatzeko, 2016ko azaroan eguneratutako EUSTATen basetik atera ditugun datu hauek hartu dira kontuan.

Estatistika-banku horren arabera:

- Bi udalerrietako biztanleen guztizko kopurua 17.164koa da.
- Ermuak 15.989 biztanle ditu guztira, hau da, biztanle guztien % 93.

- Mallabiak 1.175 biztanle ditu, hau da, Eremuko lurralde-mugapeko biztanle guztien % 7.

2. Udalerrri bakoitzari dagokio Ermua-Mallabiko Gizarte Zerbitzuen Eremuari esleitutako gizarte-zerbitzuak mantentzen laguntzea, udalerri bakoitzeko biztanle kopurua kontuan hartuta, estipulazio honen 1. zenbakian adierazitako deskribapenari jarraikiz.

Zerbitzuen benetako kostua zehazteko, kostu osoa ezarri da, Ermua-Mallabiko Eremuari dagokion lehen mailako arretako zerbitzuen kostu zuzen, medial eta egiturazkoak aintzat hartuta.

KOSTU MEDIALA: 61.185,18 €  
EGITURA-KOSTUA: 129.630,31 €

| 2017KO PARTIDA | AURREKONTUA | AURREK. %-A | BANAK. MEDIALA | EGITUR. BANAK. | PARTIDA GUZTIRA | BANAK. (1. KAP.)<br>129.417,08 | KOSTUA GUZTIRA    |
|----------------|-------------|-------------|----------------|----------------|-----------------|--------------------------------|-------------------|
| 12000          | 28.530,69   | 6,03        | 3.690,03       | 7.817,90       | 40.038,62       |                                |                   |
| 12100          | 43.217,36   | 9,14        | 5.589,54       | 11.842,30      | 60.649,19       |                                |                   |
| 16001          | 20.471,88   | 4,33        | 2.647,74       | 5.609,65       | 28.729,27       |                                |                   |
| 21100          | 1.000,00    | 0,21        | 129,34         | 274,02         | 1.403,35        | 339,81                         | <b>1.743,16</b>   |
| 22105          | 100,00      | 0,02        | 12,93          | 27,40          | 140,34          | 33,98                          | <b>174,32</b>     |
| 22112          | 100,00      | 0,02        | 12,93          | 27,40          | 140,34          | 33,98                          | <b>174,32</b>     |
| 22606          | 16.080,00   | 3,40        | 2.079,71       | 4.406,20       | 22.565,91       | 5.464,11                       | <b>28.030,02</b>  |
| 22699          | 500,00      | 0,11        | 64,67          | 137,01         | 701,68          | 169,90                         | <b>871,58</b>     |
| 22704          | 343.073,75  | 72,52       | 44.371,59      | 94.008,10      | 481.453,43      | 116.579,14                     | <b>598.032,57</b> |
| 48002          | 20.000,00   | 4,23        | 2.586,71       | 5.480,34       | 28.067,05       | 6.796,16                       | <b>34.863,21</b>  |
|                | 473.073,68  | 100,00      | 61.185,18      | 129.630,31     | 663.889,17      | 129.417,08                     | <b>663.889,17</b> |

KOSTU MEDIALA: 2.783,46 €  
EGITURA-KOSTUA: 5.897,19 €

| 2017KO PARTIDA | AURREKONTUA | AURREK. %-A | BANAK. MEDIALA | EGITUR. BANAK. | PARTIDA GUZTIRA  |
|----------------|-------------|-------------|----------------|----------------|------------------|
| 21100          | 3.200,00    | 14,87       | 413,87         | 876,86         | 4.490,73         |
| 22101          | 500,00      | 2,32        | 64,67          | 137,01         | 701,68           |
| 22102          | 53,23       | 0,25        | 6,88           | 14,59          | 74,70            |
| 22199          | 300,00      | 1,39        | 38,80          | 82,21          | 421,01           |
| 22201          | 400,00      | 1,86        | 51,73          | 109,61         | 561,34           |
| 22707          | 16.668,00   | 77,45       | 2.155,76       | 4.567,32       | 23.391,09        |
| 48001          | 400,00      | 1,86        | 51,73          | 109,61         | 561,34           |
|                | 21.521,23   | 100,00      | 2.783,46       | 5.897,19       | <b>30.201,88</b> |

3. Ermua-Mallabiko Eremuari esleitutako gizarte-zerbitzuak erabiltzailearen jatorrizko udalerriak ordainduko ditu.

**PROPOSAMENA:**  
**EREMUKO LURRALDE-MUGAPEARI DAGOZKION GIZARTE-**  
**ZERBITZUAK EMATEKO ERMUKO UDALERRIAREN ETA MALLABIKO**  
**UDALERRIAREN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN**  
**HITZARMENA**

5. ORRIA

**Hamazortzigarrena.** Ermuko eta Mallabiko Udalek hartutako konpromisoaren arabera egin beharreko finantza-ekarpenak ez dira izango Hitzarmen honen ondoriozko gastuak baino handiagoak.

**Hemeretzigarrena.** Udalerrri bakoitzeko talde teknikoei dagokie protokoloak eta erregelamenduak lantzea, gero udalek onar ditzaten, dagokionean.

**Hogeigarrena.** Hitzarmenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, mahai bat eratuko da, bi udalerrietako alkateek izendatutako ordezkari politiko eta teknikoez osatua.

**Hogeita batgarrena.** Hitzarmen honen zuzendaritza fakultatiboa Ermuko Udaleko Gizarte Zerbitzuen zuzendariari esleitu zaio.

**Hogeita bigarrena.** Hitzarmen honen iraupena lau urtekoa izango da, 2017ko abenduaren 1etik aurrera zenbatuta, baina aldeak ados jarri ezker, luzapenak egin ahal izango dira.

Adierazitako epea amaitu baino lehen edozein momentutan, honako hitzarmena sinatu duten toki-erakundeek berau beste lau urtez, gehienez, luzatzea edota iraungitzea adostu dezakete.

Hitzarmen hau sinatu duten toki-erakundeek hartutako konpromisoaren arabera, berau finantzatzeko behar diren kredituak kontsignatuko dituzte dagokion urteko aurrekontuan.

Nolanahi ere, luzapenak egin ahal izateko, erakunde sinatzaileek dagokion urteko aurrekontu-kredituak onartu beharko dituzte lehenago.

**Hogeita hirugarrena.** Honako hitzarmenak administrazio-izaera du, beraz, herri-administrazioen arteko lankidetzaz hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioaren ordenamendu juridikoak eraenduko du bere interpretazio eta garapenari dagokienean,

Berau interpretatu eta betetzerakoan sor litezkeen gai eztabaidagarriak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ezagutu eta ebatzi beharko ditu.

**Hogeita laugarrena.** Hala eta guztiz ere, hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek hitzarmenean jasotako baldintzak erabat edo zati batean betetzen ez dituenean, beste alderdiak hitzarmenaren eraginkortasuna eten egin dela ulertu ahal izango du berehala, eta, horren ondorioz, dagozkion konpromiso eta betebeharretatik aske geratuko da eta eragindako kalteen ondoriozko —hirugarrenei eragindako kalteak barnean hartuta— konpentsazio ekonomikoa eskatu ahal izango du, eskuragarri dituen lege-tresnen bidez.

Eta ados daudela erakusteko, honako hitzarmena sinatu dute, batetik, CARLOS TOTRIKA IZAGIRRE Ermuko alkateak, eta bestetik IGOR AGIRRE BARRIENTOS Mallabiko alkateak.